

## Araba Berritzailek lurraldeko 113 erakunderen proiektu berritzaileak sustatzen ditu

**Gasteiz, 2019ko irailaren 10a.** Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko Araba Berritzaile laguntza lerroaren ebazpena onetsi du. Arabako Foru Aldundiak, laguntza lerro horrekin, 1.278.427,51 euroko laguntza eman du Arabako 113 enpresa erakundek aurkeztutako berrikuntza proiektuetarako. Laguntza horien % 50 EGEF Europako funtsek finantzatua da, eta berrikuntzaren aldeko apustua sustatzen da hartara, hain beharrezkoa izanik mundu globalizatu eta geroz eta digitalizatuago honetan Arabako ekonomiaren iraunkortasunerako eta lehiakortasuna hobetzeko.

2019rako programan, 2018koan bezala, bereziki baloratu dira RIS3-Euskadi Espezializazio Adimentsurako Estrategiaren hiru lehentasunekin zerikusia duten proiektuak, alegia, fabrikazio aurreratuarekin, energiarekin eta biozientziekin zerikusia dutenak.

Laguntza horiei esker, hainbat berrikuntza jardun bultzatu dira. Nabarmentzekoak dira honako hauek: produktu berrien garapena, hala nola potentzia bihurtu eta alderantzizagailuak, itsaspeko konektoreak, ontzi arinduak, begi barneko leiarrak, garbitzeko produktuak, kosmetikoen lineak eta elikagaiak; aeronautika eta medikuntza sektoreetan gehikuntza bidezko fabrikazioaren erabilera bultzatzeko jardunak, eta tresnen markaketarako eta posizionamendurako ikuspen artifizialaren erabilera bultzatzekoak; eta 4.0 Industriako diagnostiko eta inplementazioetarako babesak, bai eta industriako eta kudeaketako softwarearen hainbat inplementaziotarako ere.

2019ko deialdi honetan, enpresa bakoitzeko batez besteko dirulaguntza gehituz joan da, eta 11.574 euroraino iritsi da; nabarmentzekoa da enpresa onuradunen % 82k 50 langile baino gutxiago dituela, eta % 48k 20 baino gutxiago.

2019an espedienteen % 58 eta 2018an % 50 elektronikoki izapidetu dira, eta horrek aukera eman du hainbat izapide Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoen bidez (<https://e-s.araba.eus>) egiteko, besteak beste, eskabideak aurkeztu, organo kudeatzailearekin harremanetan jarri, zuzenketa prozesuak abiarazi eta dagozkien egiaztagiriak aurkeztu.



## Aldundiak ia 500.000 euro banatuko ditu basogintza laguntzetarako

Foru gobernuak laguntzak emango ditu basogintza arloa garatu eta modernizatzeko azpiegituretan inbertitzeko, sute eta hondamendi naturalek basoetan eragindako kalteak prebenitzeko eta basoak basotu eta sortzeko

Gobernu Kontseiluak onetsi du 2019ko basogintza laguntzen ebazpen partziala. 350.000 euro baino gehiago banatu ostean Arabako mendien ingurumen eta ekonomia balioa handitzeko, oraingo honetan, besteak beste, foru gobernuak 500.000 euro inguruko laguntzak emango ditu basogintza arloa garatu eta modernizatzeko azpiegituretan inbertitzeko, sute eta hondamendi naturalek basoetan eragindako kalteak prebenitzeko eta basoak basotu eta sortzeko.

Lehenengo laguntza lerroan 17 onuradun izango dira, ia 200.000 euro jasoko dutenak 2019 eta 2020 artean. Natura 2000 Sareko larreetarako azpiegiturek dira, besteak beste, egingo diren inbertsioak, Donemiliagako Udalak, Aiarako ermandadeak, Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarrak eta Garobel mendilerroko eta Abitigarrako erkidegoek eraikiko dituztenak. Kontrasta, Bachicabo, Letona, Arriola eta Narbaxako administrazio batzarrek, Zigoitiko Udalak eta Badaia Mendilerroko Erkidegoak baso-larregintzako itxierak jarriko dituzte bere lurretan; Berganzo, Gillerna, Ametzaga Zuia eta Mandaitako administrazio batzarrek eta Gibijoko Mendilerroko Erkidegoak, berriz, 200 hektarea baino gutxiagoko baso pistak egingo dituzte.

Suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek basoetan eragindako kalteak konpontzeari dagokionez, Arabako 28 toki entitatek, udal eta administrazio batzarrak barne, 90.000 euro baino gehiago jasoko dute inausketa, mehazketa, sasi-garbitze, hostozabalen mozketak eta tratamendu fitosanitario lanak egiteko.

Antzekoa gertatzen da basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzeko laguntzekin. Kasu horretan, 21 entitatek jarriko dituzte abian basotzeak, birsortzeak eta zenbait itxitura, basoetan



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prentsa Oharra Nota de Prensa

kalteak ekiditeko. Helburu horretarako, 200.000 euro baino gehiagoko laguntzak emango dira.

## Aldundiak 362.450 euroekin lagunduko du kuadrilletako turismo sustapena

Haien erakargarriak ezagutaraztearren eta bisitarientzako zerbitzuak hobetzearren

Arabako Foru Aldundiak kuadrilletako turismoa garatzeko proiektuak eta jarduerak sustatuko ditu aurten, guztira 362.450 euro baliatuz, 2018an baino % 3,1 gehiago. Baliabide horiekin, Arabako eskualdeen erakargarriak ezagutzeko aukera emango duten ekimenak gauzatu ahal izango dira, eta bisitariei eskainitako zerbitzuak hobetu.

Laguntza lerro horren bidez, honako hauek finantzatuko dira: turismoko eskualde bulegoak kudeatzea, sustapen materiala diseinatu eta argitaratzea, turismo ferietara joatea; ekitaldiak eta bisita gidatuak antolatzea, turismo produktu berriak sortu merkaturatzea, eta teknologia berriekin lotutako ekimenak abiaraztea (web orriak berritzea, sare sozialak kudeatzea eta abar).

Deialdian, lehentasuna ematen zaie proiektu teknologiko eta berritzaileei, irisgarritasuna eta iraunkortasuna hobetzekoei, hotelen eta nekazaritzako turismoko etxeen okupazioa sasoi araberakoa izan ez dadin laguntzen dutenei, eta, orobat, bisitarien kopurua gehitzeko, batez besteko egonaldiak luzatzeko eta arabarrek lurralde barruan turismoa egiteko sailak egiten dituen ekintzei egokitzen zaizkienei.

Gorbeialdeko Kuadrillak 68.345 euro izango ditu sustapen materiala diseinatu eta argitaratzeko; publizitate ekintzak garatzeko; turismo produktuak sortu, hobetu eta merkaturatzeko; bisita gidatuak eskaintzeko; web gunea hobetzeko; turismo bulegoa kudeatzeko; berariazko ekintzak antolatzeko, eta bidaia agentziekin lehen ezaupidea izateko bidaiak antolatzeko.

Añanako Kuadrillaren kasuan, dirulaguntza 68.345 euro da, besteak beste hauexetarako: azoketara joateko gastuak finantzatzea, helmuga ezagutarazi eta sustatzeko; argazki erreportajea egitea; eskualdeko turismo erakargarrien seinaleak hobetzea; sustapen eta publizitate materiala editatu eta inprimatzea; web ataria berritzea, eta turismo bulegoa kudeatzea.

Arabako Lautadako Kuadrillak, guztira, 63.919 euro jasoko ditu sustapen materiala argitaratzeko, bisitariak erakartzeko ekitaldiak antolatzeko, turismo produktuak merkaturatzeko, sustapen kanpainak egiteko sare sozialetan, turismo bulegoa kudeatzeko, bisita gidatuen programa bat garatzeko, eta bidaia agentziak gonbidatzeko helmuga ezagutu eta ondoren haren sustapena egin dezaten.

Aiarako Kuadrillak, berriz, 62.818 euro izango ditu hauek egiteko: turismo bulegoari eutsi, hango erakargarri turistikoak sustatu sare sozialetan, kanpoko aholkularitza izan kalitate arloan, turismo sustapenerako ikus-entzunezko materialaren edizioa kontratatu, bisita gidatuak eta ekitaldiak antolatu, produktu turistiko berriak garatu, eta bisita teknikoak egin.

Bukatzeko, Kanpezu-Mendialdeak eta Arabako Errioiak 62.640 eta 36.383 euro jasoko dituzte hurrenez hurren. Baliabide horiei esker, lehenengo kasuan, jarduerak antolatu ahalko dira “Ibilbide Berdearen Eguna”, “GR-38aren Eguna”, eta “Inaziotar Bidearen Eguna” ospatu eta Nordic Walking-a egiteko erakargarri turistiko gisa; bigarren kasuan, berriz, bisita antzeztuak programatu ahalko dira, eta “Musika mahasti artean” eta organo jaialdia antolatu ahalko dira.

Hala, baliabide horiekin diruz lagunduko diren proiektuak askotarikoak dira, eta, haiei esker, Arabako eskualdeen erakargarriak ezagutzeko ekimenak gauzatu ahal izango dira, eta bisitarien esku diren zerbitzuak hobetu. Programa horri esker, halaber, sustapenerako tresnak eta zerbitzuen eta ekitaldien eskaintza lurraldeko eskualde orotara eraman ahal dira, eta, horrela, turismoa eta haren onurak lurraldean zehar banatuko dira.



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)

## Prensa Oharra Nota de Prensa

Foru Ogasunak onetsi du OHZri lotutako hiri lurzoruaren mugaketa berria Oionen, bertako hirigintza plangintzan sartutako aldaketak jasotzeko helburuarekin egina

Bertako hirigintza plangintzan sartutako aldaketak jasotzen ditu

Gobernu Kontseiluak onespena eman dio ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzoruaren mugaketa gaurkotzeari, azken urteotan zenbait hirigintza aldaketa onestearen ondorioz aldaketak jasan baititu.

Udalerriaren balioztapen txosten berria onesteko ezinbesteko eta aurretiko urratsa da hori; izan ere, 2019an zehar onetsiko da 2020an indarrean jar dadin, udalerriko hiri higiezinaren katastro balioztapenak eguneratzeko helburuarekin.

## Foru Ogasunak eguneratu ditu Moreda udalerriko katastro balioak

Katastro balioak % 16,42 jaitsiko dira batez beste, nahiz eta OHZ dela eta ordaindu beharreko azken prezioak udalak onesten duen zerga tasaren arabera kalkulatu diren

### Udalerriko balio berriak 2020an jarriko dira indarrean

Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onetsi du Moreda udalerriko katastro balioztapenen txosten berria. Horren ondorioz, lurzoruaren eta eraikuntzaren balio berriak, ondasun higiezinaren gaineko zergari (OHZ) atxikiak, 2020an jarriko dira indarrean eta egungo balioak ordeztuko dituzte, 2005etik indarrean daudenak.

Arabako Ogasunak egin duen eguneratzearen ondorioz, katastro balioak % 16,42 jaitsiko dira, batez beste. Hori guztiori, eraikuntzaren prezioak gora egin duen arren eta udalerriko lurzoruaren balioak nabarmen behera egiteari esker.

Hala ere, zergadun bakoitzak datorren urteko OHZren fakturan ordaindu beharreko azken zenbatekoa udalak ekitaldi honetan onartzen duen tasaren arabera izango da.

Foru Ogasunak jabe bakoitzari jakinaraziko dizkio posta bidez bere ondasun higiezinaren katastro balio berriak. Halaber, foru bulegoetan bertaratuta ere jakinaraziko zaizkie, posta bidez egitea ezinezkoa izanez gero.